

Euskal Herriko Kooperatiben Lege berria

(The new Law on Co-operatives in the Basque Country)

SAGASTI AURREKOETXEA, Josu J.

Merkataritza Zuzenbidean doktorea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Agirre lehendakariaren etorbidea, 83
48015 Bilbo
dmpsaaaj@bs.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2001), 7; 71-77

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak Euskal Herriko Kooperatiben 4/1993 Legea aldarazi eta erreformatu du zatikako eran, besteak beste, Erkidegoko arautegia Estatuko uztailaren 16ko 27/1999 Kooperatiben Legeak ezarritako arautegira egokitzeko, bai eta, bazkide langileen esparruan, kontratuen etendura eta iraungipenari dagokienez, lan-arautegi berriak ezarritako kontzeptuak (kausa teknikoak, ekonomikoak, eratzailak, ekoizpenezko kausak edo ezinbesteko indarrezko kausak) onartzeko ere. Bestalde, aldarazketa garrantzitsuenak hurrengo gai haueetan egin dira: gutxienezko kapital kopuruan, Kooperatibarekiko bazkideen loturan, "menpeko finantzaketak" eta "partaidetasun berezietan" eta Kooperatiba-talde kontzeptu berrian.

Mediante la Ley 1/2000, de 29 de junio, la Comunidad Autónoma Vasca ha reformado parcialmente la Ley 4/1993 de Cooperativas de Euskadi, entre otras causas para acomodar la normativa autonómica a lo establecido en la vigente Ley estatal 27/1999, de 16 de julio, de Cooperativas, así como para regular los conceptos relativos a la suspensión y extinción del contrato de los socios trabajadores que prevé la nueva normativa laboral (causas técnicas, económicas, organizativas, de producción o de fuerza mayor). Los cambios más sustanciales se han producido en lo que respecta a la cuantía del capital social mínimo, la vinculación de los socios a la Cooperativa, las "aportaciones financieras subordinadas" y "participaciones especiales" y al nuevo concepto de Grupo cooperativo.

Par la Loi 1/2000 du 29 juin, la Communauté Autonome Basque a réformé partiellement la Loi 4/1993 de Coopératives d'Euskadi, entre autre pour ajuster la réglementation autonome conformément à la Loi d'état 27/1999 en vigueur, du 16 juillet, de Coopératives, ainsi que pour régler les concepts relatifs à la suspension et à l'extinction du contrat des travailleurs membres, qui prévoit la nouvelle réglementation du travail (causes techniques, économiques, de l'organisation, de production ou de force majeure). Les changements les plus substantiels concernent le montant du capital social minimum, le lien entre les membres de la Coopérative, les "contributions financières subordonnées" et les "participations spéciales" et le nouveau concept de Groupe coopératif.

Eusko Legebiltzarrak **1/2000 Legea, ekainaren 29koa, Euskal Herriko Kooperatiben Legea (4/1993 Legea, ekainaren 24koa)** aldarazten duena onartu du¹.

Bestalde, kontuan izan behar da **ekainaren 30eko 1278/2000 Erret-Dekretua, Elkarte Kooperatibei aplikagarriak zaizkien Gizarte Segurantzako zenbait xedapen egokitzen dituena** –Estatuko Buletin Ofiziala (EBO), 173 zk., 2000ko uztailaren 20koa–.

Erret-Dekretu honen *Karien Adierazpenak* ezartzen duenez, **Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren –ekainaren 20ko 1/1994 Erret-Legegintz Dekretuak onarturiko Testu Elkarbidua–** *Laugarren Xedapen Gehigarriak* arautzen du gaur egun Lan Elkartuko Kooperatibetako bazkide langileen sartzeari Gizarte Segurantzaren arautzearen 1. paragrafoak adierazten du Lan Elkartuko Kooperatibetako bazkide langileek Gizarte Segurantzaren onurak izango dituztela, Kooperatibek hurrengo aukera hau egin ahal izanik, hau da, bazkide langileak inoren konturako langileekin kideak geratzea, kasu honetan Kooperatibak, beren jardueraren arabera, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean edo, hala nola, Erregimen Bereziatariko batean sarturik geratuz, edo aipaturiko bazkide langileak dagokien Erregimen berezian langile autonomo gisa geratzea. Kooperatibek aipaturiko aukera hau Estatutuetan erabiliko dute eta Gobernuak ezarriko lituzkeen kasu eta baldintzetan baino ezin izango dute aldarazi.

Beraz, **Erret-Dekretu** honek, bere *lehenengo artikulua*ren bitartez, **urtarrilaren 26ko 84/1996 Erret-Dekretuak onartzen duen Gizarte Segurantzaren enpresen inskripzioa eta langileen kidegintza, gorpuzketa, baja eta datu aldakuntzari buruzko Erregelamendu Orokorren** zenbait artikulua aldarazten ditu:

* *10. artikulua, 5. paragrafoa.* - Elkarte Kooperatibetako lan bazkideak, bai eta Estatutuen bitartez bazkide langileak inoren konturako langileekin kidegintza erabaki luketen Lan Elkartuko Kooperatibetako lan bazkideak eta lurraren amankomunezko ustiapenerako Kooperatibetako bazkide langileak sarturik leudekeen erregimenean, halako Kooperatibek Gizarte Segurantzaren gaian enpresariari esleitzen zaizkien obligazioak izango dituzte.

* *40. artikulua, 2. paragrafoa, bigarren lehen zatia.* - Halaber, Elkarte Kolektiboek, bai eta Komanditazko Elkarrekin beren bazkide kolektiboekin dogokienez eta Lan Elkartuko Kooperatibek ere, aipaturiko obligazioez sorospidez erantzuneko dute, batzuen eta bestearen sartzeari dagokien erregimen berezian beharko litzatekeenean.

* *41. artikulua, 4. paragrafoa.* - Zatikako denboran beren jardueraren burutu eta inoren konturako langileekin kidegintza leudekeen lan bazkideak edo bazkide langileak lituzketen Kooperatibetan, Estatutu edo barne erregimeneko erregelamenduen kopia edo Batzarrearen edo Errektore Kontseiluaren akordioaren ziurtagiria ekarri beharko da, zeinetan eguneko, asteko, hileko edo urteko ordu kopurua, orduen banaketa eta bere hileko, asteko edo eguneko zehaztapena etzanarazi beharko baita, bazkide langileek edo lan bazkideek zerbitzuak bete beharko dituzten egunak adieraziz.

Aipaturikoek beren jardueraren zatikako denboran burutzen dutela hurrengo kasu honetan uste izango da, hau da, eguneko, asteko, hileko edo urteko lan orduak, Kooperatibaren jardueraren sektorean eta esparru geografikoan aplikatzen den konbenio kolektiboan denbora osorako ezarritako jardunaldiaren, edo, bere kasuan, legezko gehienezko ohiko lanaldiaren ehuneko 77a baino gutxiago direnean.

Bestalde, **Erret-Dekretu** honen *bigarren artikulua*ren **abenduaren 22ko 2064/1995 Erret-Dekretuak onartzen duen Gizarte Segurantzaren beste eskubide batzuen kotizazioa eta kitapenari buruzko Erregelamendu Orokorren 65. artikuluan** aldarazketak sartzen ditu, bi paragrafo berri gehituz:

* 5.- Aurreko 1., 2. eta 3. paragrafoetan ezarritakoa inoren konturako langileekin kidegintza dauden zatikako denborarako bazkide langileei, bai eta Elkarte Kooperatibetako zatikako denborarako lan bazkideei ere, aplikatuko zaie, kotizazio oinarria jardueraren kooperatibizatu orduengatik jasoko luketen sariaren arabera zehaztuz.

* 6.- Kotizazioa jasotako sariaren arabera ezarriko ez litzatekeen erregimenean ez da aurreko paragrafoetan ezarritakoa aplikatuko.

Azkenik, *Xedapen Gehigarri Bakarrik* babes eragintza, kotizazio epealdi eta prestamenera

1 Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 146 zk., 2000ko abuztuaren 1ekoa. Lege hau 2000ko abuztuaren 2an sartu zen indarrean (*Azken Xedapen Bakarra*).

oinarri erregulatzailaren kalkuluari buruzko arautegia hurrengo hau dela adierazten du: **urtarrilaren 29ko 144/1999 Erret-Dekretua**, zeinaren bitartez, Gizarte Segurantzaren babes eragintzan, **azaroaren 27ko 15/1998 Erret-Dekretu Legea**, zatikako denborarako lanari **dagokionez lan merkatuaren hobakuntzarako eta bere egonkortasuna pizteko premiazko neurriena**, garatzen baiten. Aipaturikoa Elkarte Kooperatibetako zatikako denborarako lan bazkideei ere aplikatuko zaie.

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari gai hau arautzeko gaitasun eskusiboa **Autonomia Estatutuaren 10.23 artikulua** ematen dio, gaitasun hau geroago Konstituzio Auzitegiak 72/83 Epaitzaren bitartez berronetsiz (3. Oinarri Juridikoa).

Lege hau, beronen arauketa esparruari dagokionez, Estatuko **uztailaren 16ko, 27/1999 Kooperatiben Legeak** ezarritako arautegi berrira hertsiki egokitzen da, halako esparrua argituz, Lege hark arauturiko irizpidea bereganatzen baita. Beraz, **1/2000 Legea**, Estatuko Legearen 2. A) artikuluan ezarritakoaren arabera, beren elkarte-helbidea Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean luketen eta beren jarduera kooperatibizatua nagusiki aipaturiko lurraldean ere burutuko luketen Elkarte Kooperatiba guztiei aplikatuko zaie (*hogeita hirugarren artikulua*²).

Lege berriaren *Karien Adierazpenak* ezartzen duenez, aurreko Legea, indarrean egon den bitartean, aro berriko euskal kooperatibagintzaren enpresa- eta elkarte-garapenerako arautegi egokia bihurtu da, besteak beste, haren ekoizpen faktore multzoaren bilakaera indartua ahalbideratzeko arautegia ezarri duelako eta etengabe aldakorra den gaur egungo merkatuan Kooperatibek lehia dezaten hauek zalutasun gehiagoz ere hornitu dituelako.

Aurreko Legearen abantailak eta eragin positiboak kontuan izanik, hala ere, beharrezkoa bihurtzen da haren azterketa egitea hurrengo hau finkatzeko, hau da, bere bitartez bete nahi ziren helburuak gaur egun burutzen ote diren edo, bestalde, beharrezkoa ote den bere aldaketa, saiatsuen premietara eta sortzen ari diren enpresa-proiektuetara moldatu eta gaurkotzeko, horrela Kooperatiba berrien eraketa erraztuz eta, era berean, Euskal Herriari jadanik dauden besteak sendatuz. Hau da, besteak beste, **Euskal Herriko Kooperatiben 4/1993 Legearen** zatikako erreforma burutzen duen Lege berriaren helburua.

Zentzu honetan, *Lehen Mailako Kooperatibei* dagokienez eta izaera honetako Kooperatiba berrien eraketa errazteko, gutxieneko bazkide kopurua bostetik hirura murrizten da (*hirugarren artikulua*³). Aldaketa honekin batera eta ondorioz, gutxieneko elkarte-kapitala hiru mila eurotara (499.158 pezetetara) jaisten da (*lehenengo artikulua*⁴).

Bestalde, *administrazio organoaren mailan* ere aldaketa garrantzitsua ezarri da, Kooperatiben funtzionamenduari bizkortasuna eta zalutasuna emanik. Honela, Kooperatibako Errektore Kontseiluan postu erreserbak ezartzekotan, kasuan kasuko bazkide talde bakoitzak, Estatutuek kontrako xedapenik ez izanik, berari dagokion kontseilari kopurua Batzarre Orokorrean zuzenean hautatzeko eskubidea izango du, Kontseiluko gainerako kideek hautaketan parte hartu gabe (*seigarren artikulua*⁵).

Era berean, Kooperatiba mota batzuetan, hala nola Nekazaritzakoetan eta Kontsumokoetan, *Batzarre Orokorren eraketa* malgutu egiten da, Kooperatiben organo gorenaren geraraztea, azken finean, ekidinez. Helburu hau lortzeko, aipaturiko Kooperatiben kasuan, hirugarren deialdia ezartzen da, zeina, bertan bildurik dauden botuen zein ordezkaturiko botuen kopurua edozein delarik ere, aurreko bi deialdietarako ezarritako *quorum*-ak lortu ezin izan direnean baino ez baita burutuko (*bosgarren artikulua*⁶).

Elkarte-kapitalari dagokionez eta batez ere, barnekoa saihestu gabe, kanpoko finantzaketa eskuratzeko, «*menpeko finantzaketa-ekarpen*» izeneko enregimena arautzen da, halako finantzaketak Kooperatibaren berezko baliabideak era iraunkorrean osotuz. Era berean, Legeak «*menpeko finantzaketei*» buruzko nolabaiteko kontzeptua ezartzen du; honela, “menpeko finantzaketa gisa hartuko dira, Kooperatibak jaso eta, kredituen lehentasunaren eraginetara, ohiko hartzekodunen ondoren ezarriko liratekeen finantzaketak”. Zentzu honetan, eta beren izendapena edo itxuraketa juridikoa edozein delarik ere, Kooperatibak bazkideekin edo hirugarrenekin kontratatuturiko edozein menpeko finantzaketa-ekarpena, zeinen epemuga ez baiten bere kitapena onartu arte betetzen, elkarte-kapital gisa hartuko da. Aipaturiko ekarpenak edo partaidetasunak berriz jasogarriak edo karteran lortuak izan daitezke, Kapital Elkarteetan partaidetasun edo akzioentzat ezarritakoak bezalako bermetasun finantzaketa-bideen bitartez, **77/91 Bigarren Jarraibidean** ezarritako aukerak barne. Halako ekarpenak, zeintzuen

2 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen Bigarren Azken Xedapenari** idazketa berria ematen dio.
3 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 19. artikulua**ren 1. paragrafoari idazketa berria ematen dio.
4 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 4. artikulua**ri idazketa berria ematen dio.
5 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 41. artikulua**ren 3. paragrafoari idazketa berria ematen dio.
6 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 34. artikulua**ren 2. paragrafoari idazketa berria ematen dio. Bereziki, aipaturiko aldaketa, 34. artikulua 2. paragrafoan, «*in fine*», ezartzen da.

ordaina finkoa, aldakorra edo partaidetasunezkoa izan baitaitekeen, titulu edo kontu oharpenen bitartez agertuko dira; era berean, jaulkipen akordioan horrela ezarriko balitz, balore higigarritzat hartuko dira, kasu honetan beren erregimen juridikoa finantzaketa-aktibo hauei aplikagarria zaien arautegira egokituz. Ekarpen hauek ez dute, inolaz ere, Batzarre Orokorrean botu eskubiderik emango, ez eta administrazio organoan parte hartzeko eskubiderik ere. Honez gain, ekarpen hauen jaulkipena edo kontratazioa, ehuneko 50a baino gutxiago ez den zenbatasunean, Kooperatibako bazkide eta soldatapeko langileei eskaini beharko zaie, hirugarrenei eskaini aurretik. Halako eskaintzak, Kooperatiban Batzarre Orokorren deialdirako ezarritako publikitate bezalakoa izango du (*zortzigarren artikulua 1. paragrafoa*⁷).

Aurreko alaketarekin lotura izanik, «*partaidetasun berezi*» izenekoei buruzko erregimen juridiko berria ezartzen da (*bederatzigarren artikulua*⁸). Honela, lehenengo eta behin, «*partaidetasun berezien*» definizioa adierazten da, hurrengo hauek direla erabakiz: aipaturiko artikuluan ezarritako arauketara espresuki loturik dauden menpeko finantzaketak, zeintzuetan nahi eta nahi ez –artikulua 4. zenbakian aurreikusitakoa izan ezik– izenpetzaileek Kooperatibak ez diren erakundeak izan behar baitute, zeintzuen berriz jasotzea jaulkipenetik gutxienez bost urte igaro arte ezin izango baiten burutu eta zeintzuen saria Kooperatibaren emaitzen arabera ezarriko baiten. Partaidetasun hauen gainerako ezaugarriak beren jaulkipen unean askatasunez ezarriko dira, baina ez dute, inolaz ere, Batzarre Orokorrean botu eskubiderik esleituko ez eta administrazio-organon parte hartzeko eskubiderik ere. Era berean, «*partaidetasun bereziei*» buruz ezarritakoa Kreditu-kooperatibei eta Aseguru-kooperatibei baino ez zaie aplikatuko, batzuen edo besteen arautegiek horrela eragotziko ez luketenean. Halaber, menpeko finantzaketak direnez, «*partaidetasun berezien*» jaulkipena edo kontratazioa, ehuneko 50a baino gutxiago ez den zenbatasunean, Kooperatibako bazkide eta soldatapeko langileei eskaini beharko zaie, hirugarrenei eskaini aurretik, halako eskaintzak, Kooperatiban Batzarre Orokorren deialdirako ezarritako publikitatea bezalakoa izanik. Azkenik, artikulua honen arauketara espresuki lotzen ez

diren partaidetasunak, beraien izendapena edozein delarik ere, itun askearen bitartez edo 57. artikuluan elkarte-kapitalarentzat edo 65. artikuluan beste finantzaketa batzuentzat ezarritakoaren bitartez arautuko dira.

Bestalde, elkarte-lotura bizkortu egiten da, iraupen zehatza duten *bazkideen mugak* hedatuz eta *inoren konturako kontratazioa*, bere kasuan, haren parean murriztuz. Era berean, aipaturiko talde bitzuk oro har urtean beteko orduei gehienezko muga berri bat ezarriko zaie. Zentzu honetan, inoren konturako lan kontratua duten langileek gainditu ezin duten portzentaje-mugari dagokionez, portzentajea eta bera zehazteko irizpidea aldatu egiten dira eta malgutasuna eta eraginkortasuna –batez ere Kooperatiba txikietan– eta segurtasun juridikoa, alde batetik, eta iraupen zehatzeko elkarte-kontratazioaren bizkortzea, bestetik, lortzeko salbuespen batzuk ezartzen dira. Honela, inoren konturako lan kontratua duten langileek urtean buruturiko ordu kopurua ezin izango da bazkide langileek urtean egindako ordu guztien ehuneko 25a baino gehiago izan. Hala eta guztiz ere, enpresaren premia objektiboek aipaturiko portzentajea gehitzera behartuko balute, egite hau hiru hilabete gehituko ez lituzkeen epealdian baino ez litzateke baliozkoa izango; edozein kasutan, aipaturiko epealdia gehitzeko, Lan arloa atxikirik lukeen Sailari karizko baimena eskatu beharko zaio, zeinek hamabost eguneko epean erabaki beharko baituen, bere isiltasuna baimena emantzat dagoela ulertuz. Aldez aurretik aipaturiko portzentajearen ez dira zenbatuko: **a)** Menpeko edo gehigarritzko izaera duten lan- gune eta unitateetan urtean buruturiko lan-orduak⁹; **b)** legeko subrogazioz Kooperatibetan sarturiko inoren konturako langileek buruturiko lana, bai eta subrogazio hauetara meneraturik dauden jardueretan parte har dezaketenek buruturikoa ere; **c)** lan utzialdian eta behin-behineko ezgaitasun egoeran eta amatasunagatik, semetzat edo alabatzen hartzeagatik edo abegi egiteagatik bajaran dauden bazkide langileak edo soldatapeko langileak ordezkatzeko dituzten langileek buruturiko lana; eta **d)** bazkide langileak izateari berariaz uko egin liezaizoketen langileek buruturiko lana. Azkenik, eta artikulua aldez aurretik ezarritakoa hala ere, zortzi bazkide langile baino gutxiago lituzketen Kooperatibek inoren

- 7 Artikulua honen *1. paragrafoa* **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 57. artikulua** 5. paragrafo edo zenbaki berria gehitzen dio. Honen ondorioz, eta *zortzigarren artikulua 2. paragrafoa* adi, erazten duen bezala, **ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 57. artikulua 5. zenbakia** artikulua bereko *6. zenbakia* bihurtzen da, zeinaren idazketa hurrengo hau baiten: “Artikulua honen 1. zenbakitik 5. erainokoetan ezarritakoa Kreditu-kooperatibei eta Aseguru-kooperatibei aplikatuko zaie, batzuen edo besteen arautegiek horrela eragotziko ez luketenean baino”.
- 8 Artikulua honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 64. artikulua** idazketa berria ematen dio.
- 9 Zentzu honetan, Legeak berak adierazten du zer ulertu behar den menpeko edo gehigarritzko izaera duen lan-gunean buruturiko lantzat, hurrengo kontzeptu hau finkatuz: bezeroaren zein haren onuradunaren tokietan eta Administrazio publikoarentzat iraupen zehatzeko zerbitzuak betetzeko Kooperatibek kontrata litzaketan inoren konturako langileek buruturikoa. Izaera bera izango dute ere Kooperatibak obretan, muntaketetan edo jarduera lagungarrietan egin beharko lituzkeen jarduerak, baldin eta hauek Kooperatibaren elkarte-objektu nagusia ez badira, jardueraren berezko eskakizunen arabera Kooperatibako tokietatik kanpo betetzen badira eta Kooperatibarekiko harremanak benetan izaera egonkorra eta iraupen mugagabea ez badu.

konturako lan kontratua luketen bi langile kontratatu ahal izango dituzte gehienez ere (*hamaikagarren artikulua*¹⁰).

Lege berriaren ikuspegitik ere, bazkideak izateko aukerarik ez duten soldatapeko langileei buruz, Kooperatibaren emaitza positiboetan parte hartzeko printzipioa aplikatzerakoan sortzen diren arazo zehatzei erantzun pragmatikoa eta eraginkorra ematen zaie. Honela, aipaturiko aukera ez duten soldatapeko langileek, edo halako aukera erabili ezin izango luketen bitartean, Kooperatibaren emaitzetan, hauek positiboak liriatekeenean, parte hartuko dute Estatutuetan ezarriko den proportzioan, zeina ezin izango baiten lanbide-sailkapen bereko edo antzeko bazkideei ezaguturiko kooperatiba-itzulkinaren ehuneko hogeita bosta baino gutxiagokoa izan. Era berean, soldatapeko langilea bajaran geratuko litzatekeenean, halako partaidetasuna Batzarre Orokorrak onarturiko azkenengo urteroko kontuetan oinarriturik kalkulatu ahal izango da (*hamabigarren artikulua*¹¹).

Langileen eskubideei dagokienez, bazkide langileenak eta inoren konturako langileenak parekidetu egiten dira administrazio- kontrata eta emakida kasuetan burutzen diren subrogazioetan. Horrela, besteak beste, enpresa berri batek kontratan edo emakidan Kooperatiba ordezkatzearan eraginduak gerta liriatekeen bazkide langileen lanpostuak babestu nahi dira eta, zentzu honetan, halako egoeran leudekeen langileek bost urteko epean lehentasunezko eskubidea izango dute beren jatorrizko Kooperatiban birsartzeko, halako Kooperatiban lehenago zituzten antzeko edukiko lanpostu berriak sortuko balira (*hamalagarren artikulua*¹²).

Halaber, bazkide langileen kontratuen etendura eta iraungipenari dagokienez, indarrean dagoen lan-arautegiarekin bat, **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legea** indarrean sartu zenez geroztik ezarritako kontzeptu berriak onartzen dira, hau da, kausa teknikoak, ekonomikoak, eratzailak, ekoizpenezko kausak edo ezinbesteko indarrezko kausak. Beraz, kontuan hartzen dira aipaturiko kausa haueetan oinarrituriko etendura edo obligaziozko baja. Honela, Lan Elkartuko Kooperatibetan, aipaturiko kausak bihurtuko liriatekeenean, bazkide langileak bere lana egiteko dituen obligazioa eta eskubidea aldi baterako eten daitezke, halako prestamenaren ekonomiazko eskubideak eta obligazioak galduz, baina bazkide gisa litzuzkeen gainerako eskubide eta obligazioak

gordez. Aipaturiko egoera gerta dadin, Batzarre Orokorrak, halako kausaren batean oinarrituz, alde batetik, hurrengo hau adierazi beharko du: Kooperatiba osotzen duten bazkide langile guztiak edo hauekariko batzuk etendura egoerara pasatzea beharrezkoa dela, eta etenduraren iraupena; bestetik, etendura egoeran geratu beharko duten bazkide langile zehatzak izendatuko ditu. Etenduraren kausak eteterakoan, bazkide langileak bere eskubide eta obligazioak osoki berreskuratuko ditu. Bestalde, batera datozen kausa tekniko, ekonomiko, eratzailak, ekoizpenezko kausa edo ezinbesteko indarrezko kausen larritasunaren ondorioz, Kooperatibaren bideragarritasun ekonomikoa mantentzeko lanpostu kopuru osoa edo lanbide talde edo multzo zehatz batzuen kopurua murriztea beharrezkoa balitz, Batzarre Orokorrak Kooperatiban baja izango duten bazkideen nortasuna eta kopurua zehaztu beharko ditu. Kasu haueetan, baja obligaziozko justifikatuztat hartuko da eta kanpoan geldituko liriatekeen bazkideek elkarre-kapitalera beraiek egindako ekarpenen berehalako bihurpen eskubidea izango dute, eta, bajaren ondorengo bi urtetan beraiek zituzten postuen antzeko berriak sortuko balira, birsartzeko lehentasun eskubidea gordeko dute (*hamabosgarren artikulua*¹³).

Bigarren Mailako edo Maila Handiagoko Kooperatibei dagokienez, beren bazkideen Kooperatiba izaerari darion zehaztapena kontuan izanik, Kooperatibetan bazkideen sarrera eta bajari buruzko ezarritako erregimena malgutu egiten da. Horrela, pertsona juridikoa den edozein bazkide onartu ahal izateko, Errektore Kontseiluaren aldeko akordioa beharko da, bertan daudenen edo ordezkaturik leudekeenen botuen bi herenen gehiengoaz, gutxienez, harturik, Estatutuetan beste gehiengorik aurreikustean salbu. Era berean, Estatutuek bi urtera arteko behin-behineko lotura epealdiak edo proba epealdiak arau ditzakete, eta onarpenari buruzko erabakia Batzarre Orokorrari esleitu. Bestalde, baja lortu nahi izango lukeen pertsona juridiko bazkideak gutxienez urtebete lehenago eman beharko dio erabilera aurreabisuari, Errektore Kontseiluak betebeharrak honetaz salbuetsiko ez balu, eta, bere benetako banaketa aurretik, *Bigarren Mailako edo Maila Handiagoko Kooperatibarekin* jasotako obligazioak betetzera edo –Kooperatibaren Errektore Kontseiluak horrela erabakiko balu– Kooperatiba ekonomikoki ordaintzera beharturik egongo da. Halaber, Estatutuen kontrako aurreikuspenik salbu, erakunde banatuak, bi urte baino gutxiagokoa izango ez den epean, bajaren data aurretik jaso

10 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen** 99. artikulua 4. paragrafoari idazketa berria ematen dio.

11 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen** 99. artikulua 5. paragrafoari idazketa berria ematen dio.

12 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen** 99. artikulua 9. paragrafoa gehitzen dio, idazketa berriaz.

13 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen** 103. artikulua idazketa berria ematen dio.

zituzkeen engaiamenduak garatzen iraun beharko du (*hamaseigarren artikulua*¹⁴).

Era berean, *Bigarren Mailako* edo *Maila Handiagoko Kooperatibaren* elkarte-kapitalera egindako obligaziozko ekarpenei buruzko irizpide berriak ezartzen dira. Honela, halako ekarpenak, bazkide bakoitzak Kooperatibarekin engaiaturiko kooperatiba-jardueraren arabera burutuko dira, Estatutuek ezarriko luketen eran, bai bazkide kopuruaren arabera, bai Legearen *58.1 artikulua* *Lehen Mailako Kooperatibentzat* ezarritako irizpideen arabera (*hamazazpigarren artikulua*¹⁵).

Azkenik, *Bigarren Mailako* edo *Maila Handiagoko Kooperatiben* egitura organikoari dagokionez, hau bi eratan malgutzen da. Lehenik, Estatutuei halako Kooperatiben kideen ordezkariak gutxienezkoak eta gehienezkoak ezartzeko ahalmena ematen zaie, proportzionaltasunaren oinarritzko irizpideari kalterik egiteke, zeina ez baiten zalantzan ipintzen. Honela, Batzarre Orokorra, bazkide erakunde bakoitzaren botu eskubideari proportzioan dagokion bazkide erakunde juridikoen ordezkari kopuruak osotuko du, Elkarte Estatutuetan gehinezko eta gutxienezko mugak finkatu ahal izanik, bai eta, bere kasuan, lan bazkideen ordezkariak ere. Era berean, erakunde bakoitzaren botu eskubidea, kooperatiba-jardueran luketen partaidetasunari edo bazkide kopuruari proportzioan legokiekeena izango da. Elkarte Kooperatiba ez litzatekeen erakundearen botu kopurua ezin izango da elkarte-botuen herena baino gehiago izan, lau bazkide baino gutxiago daudenean izan ezik. Bigarrenik, Errektore Kontseiluko kide kopurua gehitzeko aukera zabaltzen da, horrela bertan bazkide guztiek edo, gutxienez, bazkideen ordezkariak batek edukia izan dezaten, bazkide mota ezberdinen egote nahikoa bermatuz. Helburu hau lortzeko, Estatutuen kontrako aurreikuspenik salbu, Errektore Kontseiluak gehienez hamabost kidez osaturiko kopurua izango du eta bertan, bai zuzenean bai zeharka, bazkide erakunde guztiak egongo dira ordezkariak. Bazkide erakunde kopuruak legez edo Estatutuen bitartez ezarritako kideen gehienezkoa gaindituko lukeenean, botu kopuru gutxiago luketenak bildu ahal izango dira beren ordezkariak izendatzeko, honi dagozkion estatutu- edo erregelamenduzko barne aurreikuspenak betez. Botu eskubidea Kontseiluaren barnean, Batzarre Orokorrentzat ezarritako mugapenarekin, kooperatiba-jarduerari edo kontseilariak ordezkatzeko duten erakundearen edo erakundeen bazkide kopuruari proportzioan dagokiena izan daiteke. Estatutuek

ere hurrengo hau aurreikus dezakete, hau da, errektore hautatuek, pertsona gaituen artetik –zeintzuk taldeko Kooperatibaren bateko kideak izan baitaitezkeen zein ez– Errektore Kontseiluko kideen herenera arte izenda ditzaketela (*hamazortzigarren artikulua*¹⁶).

Bestalde, elkar-lankidetzarako bide berria zabaltzen da, elkarte-helburua betetzen languntzen duten eragiketen kooperatiba-izaera ezagutuz. Horrela, beren elkarte-objektuak bete ahal izateko, Kooperatibek beste batzuekin kooperatiben arteko akordioak izenpetu ditzakete. Hauen arabera eta ondorioz, Kooperatibak eta bere bazkideek, akordioa sinatu zuten beste Kooperatibetan, hornidura eragiketak eta produktu edo zerbitzuak ematea burutu ahal izango dituzte, halako egiteek berezko bazkideekin egindako eragiketa kooperatibizatuen kontsidero berbera izanik (*hemeretzigarren artikulua*¹⁷).

Erreforma Legearen berritasun garrantzitsua Kooperatiba-talde kontzeptua sortzea da, orain arte ezagutzen ez zena. Mota juridiko honek, elkar-lankidetzaren printzipioan oinarriturikoak, gero eta osotuagoak dauden merkatuetan aritu ahal izateko gero eta zorrotzagoak diren erronken aurrean Kooperatiba Elkartearen enpresa-osatze modalitate berriak bultzatzeko helburua du. Gai honi dagokionez, lehenengo eta behin, Kooperatiba-talde kontzeptua azaltzen da; honela, Legearen eraginetara, Kooperatiba-taldetzat hurrengo hau ulertuko da: zenbait Elkarte Kooperatibek, berauen mota edozein delarik ere, eta taldeko burua den erakundeak osaturiko multzoa, ahalmenak jardun edo bilduriko Kooperatibek nahi eta nahi ez bete beharko dituzten argitasunak ematen dituen, halako ahalmenen esparruan ondorioz erabaki batasuna sortaraziz. Taldeak bere funtzionamendua kooperatiba-printzipioetara egokitu beharko du. Era berean, argitasunen esparrua finkatzen da, hauek zenbait gestio, administrazio edo gobernu eremutan eragin ahal izanik. Bereziki, eta besteak beste, hurrengo hauek ezartzen dira: Oinarritzko Kooperatibetan estatutu- eta erregelamenduzko arauen ezarpena; oinarritzko erakundeetan harreman elkargarrien ezarpena eta bakoitzaren enpresa-bilakaeraren edo emaitza-kontuen arabera kalkulaturiko baliabideen aldizkako ekarpen engaiamenduak. Bestalde, Kooperatiba-taldean sartzeko onartzeak oinarritzko erakunde bakoitzaren hasierako akordioa beharko du, bakoitzaren gaitasun eta funtzionamendu arauen arabera. Taldearen aurrean jasotako engaiamendu orokorrak idatziz formaldu beharko dira Talde-burua den

14 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 129. artikulua**ren 2. eta 3. zenbakiei idazketa berria ematen die.

15 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 130. artikulua**ren 1. zenbakia idazketa berria ematen dio.

16 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 131. artikulua** idazketa berria ematen dio.

17 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 134. bis artikulua** berria gehitzen dio.



erakundearen Estatutueta, Elkarte Kooperatiba balitz, edo, halakoa ez balitz, eskritura publikoan formalduriko beste kontratu-agiri baten bitartez, eta nahi eta nahi ez hurrengo aipamen hauek izan beharko dituzte: Taldearen iraupena, mugatua izatekotan; bere aldarazketarako prozedura; Elkarte Kooperatiba baten banaketarako prozedura eta ahalmenak, zeintzuen jardutea Talde burua den erakundeari esleitzea erabakitzen baiten. Aipaturiko engaiamenduen aldarazketa, gehitzea edo bertan behera uztea Talde burua den erakundearen organo gorenen akordioaren bitartez burutu ahal izango da, horrela ezarri baldin balitz. Talde batekoa izatea, eta hartatik banantzea ere, Elkarte Kooperatiba bakoitzari Kooperatiben Erregistroan dagokion orrian ohartaraziko dira. Talde batean sarturiko Elkarte Kooperatibek zuzenean hirugarrenekin buruturiko eragiketei darien erantzukizuna ez da Talderaino ez eta Taldea osotzen duten gainerako Elkarte Kooperatibetaraino ere helduko (*hogeigarren artikulua*¹⁸).

Legeak ere Eusko Jaurlaritzari hurrengo hau eskatzen dio, hau da, Kooperatibagintza arloan gai den Saila giza baliabideez eta baliabide materialez hornitzea, horrela berari dagozkion eragintza, hedapen, erakuntza, ikuskaritza eta erregistro funtzioak egokiro bete ditzan (*hogeita batgarren artikulua*¹⁹).

Bestalde, Legeak, enplegua bizkortzeko eta sendatzeko neurri publikoei dagokienez, bazkide langileen eta inoren konturako gainerako langileen trataeraren berdintasuna ezagutzen du (*hogeita bigarren artikulua*²⁰).

Legeak Erregistro ezberdinen arteko koordinazioa ere kontuan hartzen du eta, zentzu honetan, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren eta Estatuko Kooperatiben Erregistro eta Merkataritza Erregistro Zentralaren arteko koordinazioa eragin beharko du, **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 12.2.f) artikuluan** aurreikusitako sistema beste izendapen bateraezineko ziurtagiri bakarreko batez ordeztzeko (*Xedapen Gehigarri Bakarra*). Azkenik, beren epemuga bukatu gabe luketen partaidetasun bereziek beren jaulkipenean ezarritako erregimena mantenduko dute (*Xedapen Iragaitz Bakarra*).

KOMUNZTADURA TAULA

<i>Ekainaren 24ko 4/1993 Legea</i>	<i>Ekainaren 29ko 1/2000 Legea</i>
* 4. Artikulua: Idazketa berria	* 1. Artikulua
* 13. Artikuluaren 1. paragrafoaren l) idatz-zatia: Idazketa berria	* 2. Artikulua
* 19. Artikuluaren 1. paragrafoa: Idazketa berria	* 3. Artikulua
* 26.2 Artikulua: Aldarazketa eta idazketa berria	* 4. Artikulua
* 34. Artikuluaren 2. zerbakia: Idazketa berria	* 5. Artikulua
* 41. Artikuluaren 3. paragrafoa: Idazketa berria	* 6. Artikulua
* 57.4 Artikulua: Aldarazketa eta idazketa berria	* 7. Artikulua
* 57. Artikulua: 5. zerbaki berria gehitzea	* 8. Artikuluaren 1. paragrafoa
* 57. Artikuluaren aurreko 5. zerbakia 6. zerbakia bihurtzea, idazketa berriaz	* 8. Artikuluaren 2. paragrafoa
* 64. Artikulua: Idazketa berria	* 9. Artikulua
* 66. Artikuluaren 2. zerbakiaren b) letra: Idazketa berria	* 10. Artikulua
* 99. Artikuluaren 4. zerbakia: Idazketa berria	* 11. Artikulua
* 99. Artikuluaren 5. zerbakiaren bigarren lerroaldea: Idazketa berria	* 12. Artikulua
* 99. Artikuluaren 9. zerbakia: Ezereztaturik	* 13. Artikulua
* 99. Artikulua: 9. zerbaki berria gehitzea	* 14. Artikulua
* 103. Artikulua: Idazketa berria	* 15. Artikulua
* 129. Artikuluaren 2. eta 3. zerbakiak: Idazketa berria	* 16. Artikulua
* 130. Artikuluaren 1. zerbakia: Idazketa berria	* 17. Artikulua
* 131. Artikulua: Idazketa berria	* 18. Artikulua
* 134. bis artikulua berria gehitzea	* 19. Artikulua
* 135. bis artikulua berria gehitzea	* 20. Artikulua
* 137. Artikuluaren 3. zerbakia: Idazketa berria	* 21. Artikulua
* Laugarren Xedapen Gehigarria gehitzea	* 22. Artikulua
* Bigarren Azken Xedapena: Idazketa berria	* 23. Artikulua

18 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legeari 135. bis artikulua** berria gehitzen dio.

19 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 137. artikulua**ren 3. zerbakiari idazketa berria ematen dio.

20 Artikulu honek **Euskal Herriko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legeari Laugarren Xedapen Gehigarria** gehitzen dio.